

PRENTSA OHARRA: 2023.04.03

Kimuak 2023 film laburren aukeraketan parte hartzeko deialdia abiatu da

KIMUAK programaren 2023ko ediziora film laburrak aurkezteko epea maiatzaren 8ra bitarte egongo da zabalik.

KIMUAK programaren 2023ko edizioan parte hartzeko deialdia zabaldu da. Eusko Jaurlaritzak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez antolatu eta Zineuskadi elkarteak kudeatutako programa honek, Euskadiko Filmategiaren laguntza du zabalkunderako. Dei honetan hautatuak suertatzen diren film laburrak **KIMUAK** deiturapean jasoko dira eta nazioarteko zinema jaialdi zein ikus-entzunezko ospakizun garrantzitsuenetara bidaliko dira.

Aukeraketan parte hartu nahi duten zuzendari edo ekoizleek, **30 minututik beherako** iraupena duten lanak bidali beharko dituzte. Partehartzaile bakoitzak nahi beste film labur aurkeztu ahal izango ditu, betiere 2022eko ekainaren 1etik aurrera osatutakoak badira.

Bestalde, iazko berrikuntza mantenduz, **Euskal Hirigune Elkargokoez gain, Nafarroako Foru Komunitateko euskarazko film laburrak ere onartuko dira.** EAEko film laburren kasuan, edozein hizkuntzatan egindakoak izan daitezke.

Film laburrek komertzialki estreinatu gabeak izan behar dute. Zinemaldi baten kontestuan plataforma publikoren baten bitartez hedatuak izan diren lanen onarpena ebaluatuko da. Halaber, lanok gehienez 25 zinemalditara aurkeztu izatea onartuko da.

Deialdiaren oinarriak eta izena emateko formularioa kimuak.com web gunean daude eskuragarri.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus